

# **BEZEROEKIKO HARREMANAK**

**G**ure enpresak bezero berriak izateko eta mantentzeko, baita salmenta berriak egiteko ere, harreman sistema errazak eta eraginkorrak sortzen saiatuko da.


Bezero eta erabiltzaile berriak lortzeko eta gazteok **Instagramean** asko ibiltzen garenez, ezinbestekoa ikusi dugu bertan gure presentzia bermatzea. Esate baterako, Instagramen bideo laburrak egingo ditugu, irudi erakarriak sartuz. Bestetik, **Tik Toka** modu antzekoan erabiliko dugu, gomendio akademikoak emanaz, eta ikasleekin ahalik eta harreman estuenak sortuz. Azkenik, **“X” aplikazioa** ere erabiliko dugu, hezkuntza-arloko berriei buruz mintzatzeko. Horrez gain, tiktok-en eta Instagramen zenbait **influencerrekin lana** egingo dugu, gure aplikazioa gazte guztien artean zabaltzeko, jende ospetsu horiek gu gazteongan eragin handia baitute.

Gure bezeroak gustura edukitzeko eta hauei eusteko beharrekua iruditu zaigu arreta zerbitzu bat eskaintzea, horretarako laguntza zerbitzu bat eskainiko duen atal bat izango du gure aplikazioak. Modu horretan, gure erabiltzaileek APParen erabileran izan ditzaketen zalantzak argitu edo arazoak konpondu ahal izan dituzte.

Gainera, **ikastetxeekin kontaktu** zuzena mantenduko dugu. Aplikazio hau ikasleentzat oso lagungarria izan daiteke, baina baita zenbait irakasleentzat ere. Laguntza gehigarri gisa, saio laburrak antolatuko ditugu eskoletan... eta aldi berean gure zerbitzua jende gehiagori bistaratzeko. Horregatik, **saio laburrak antolatuko ditugu eskoletan**, aplikazioa nola erabiltzen den azaltzeko eta haien zalantzak ebazteko.

Bukatzeko, **erabiltzaile bakoitzak gomendio desberdinak jasoko ditu**, haren bilaketen eta interesen arabera. Bezero bakoitzak behar zehatz batzuk izango ditu, eta horren arabera, bilakera desberdinak egingo dituzte. Horregatik, aplikazioak gomendioak pertsonalizatuko ditu, erabilera atseginagoa egiteko. Honi esker, bezeroak erosoago sentituko dira.

Laburbilduz, bezero berriak erakartzeko, sare sozialetan, ikastetxeetan eta gazteentzako komunikazio-kanaleetan presentzia izango dugu.



mugikor bat, barruan liburu ordenatuak dituen apalategi batekin, atzealdean zerua hodeiekin, eta, gainera, sare sozialetan erabiltzen diren sinboloak ikus ditzakegu, hala nola behatz bat gorantz, komentatzeko sinbolo bat eta beste bat jakinaraztekoa.

Argazkia-hemendik:<https://impulso06.com/como-organizar-los-contenidos-digitales-de-forma-eficiente/>